

BERRIGARA

0. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1996, apirilak 12



Mendi astea

Autopulmans Araba S.L.

Angiozar auzoa, 3 BERGARA

AUTOBUSAK

Telefonoa: 76 55 70

Era guztietako bidaietarako autobusak: sagardotegi, ezkontza, bodega, ikasketa bidaia, despedida, lantegi, eskola...

ESKA EZAZU AURREKONTUA!!



ALTZARIAK • DEKORAZIOA

UGARTE

AROSZTEGIA

San Juan auzoa (Barruti) Telefonoa eta Faxa: 76 54 91



Leiho
termoakustikoak
Horma armairuak
Ateak
Altzariak



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
B 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:
ARDUN Elkarte.
Asterreka, 13 Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:
Alex Azkarate

Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Eskel Elkoroberezibar
Ene Larrañaga

Maketazioa:
Alex Azkarate

Publizitatea:
Alex Azkarate

Argipidetzak:
Erika Elortza

Bestuen zuzenketak:
Estepan Plazaola
Ene Laskurain
Ene Labaien

Erredakzio kontseilua:
Erika Elortza
Ene Angel Elkoroberezibar
Ene Labaien

Omikiak:
Eitor Rodriguez
Erika Ortega & Jon Alvarez
Ene Ugalde
Ene Azkarate

Erretadako argazkia:
Ene Cantero

Argazkiak:
Ene Angorri taldea

Irada:
1000 ale.

Primategia:
Ene Kooper. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:
BERRIGARA

Argazki gordailua:
1990/91

ISBN:
84-30-6599

BERRIGARA ez du bere gain
erabiltzen aldizkariaren adierazitako
irudiak eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jauriaritzaren Kultura
Ezkerreko Laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

ARANTZAZU OREGI

Udal Artxibategiko arduraduna

- Udalak Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena sinatu du. Zertan datza hitzarmen hori?

- Eusko Ikaskuntza eta Udalaren artean "Unión Cerrajera Abozko Iturburuak" izeneko proiektua jarriko dugu martxan. Helburua, Zerrajerako historia hobeto ezagutu ahal izateko, ahozko testimonioak jasotzea litza-teke eta horretarako Eusko Ikaskuntzak bi beka kaleratuko ditu. Bekaren zenbatekoa milioi batekoa izango da eta beharrezkoa izango da Eusko Ikaskuntzako bazkide izatea eta Bergarako eus-kara jakitea.

- Zein izango da bekadunen lana?

- 20 bat elkarrizketa egin beharko dituzte eta horretarako Bergara eta



Zerrajerako historia pres-tatu beharko dute. Elkar-ritzketatuak aukeratu on-doren elkarrizketak gra-batu eta idatzi egingo di-ra. Kopia bat Artxiboan eta bestea Donostiako Historia Garaikidearen Zentroan gordeko dira.

Lana abendurako a-maituta egotea espero dugu eta ea ikerlari-entzat material interesgarria biltzen den.

"Zerrajerako historia ezagutzeko ahozko testimonioak jasoko dira"

I T U R R I O N E T I K

Hiru eskakizun jaso dira Igerilekuetako taberna hartzeko

Astelehenean erabakiko da Igerilekuetako taberna nori adjudikatzen zaion. Asteartean amaitu zen eskakizunak aurkezteko epea eta guztira hiru eskaintza jaso dira. Asteleheneko Gobernu Batzordean aztertuko da gaia eta, beraz, urtebetez, datorren urteko maiatzera arte, tabernari berriak izango ditugu Igerilekuetan. Hainbat hobekuntza eta apainketa lanak egin ondoren Igerilekuetako taberna maiatzaren hasieran zabaltzeko asmoa dago. Adjudikazioa urtebetekoa bakarrik izango da Udalak Igerilekuetan beharrezkoak diren berritze lanak egiteko aukera izan dezan.

E S A N
D U T E

"Alderdiaren helburua Euskadiren independentzia da, izan da eta izango da; PP, PSOE eta IU espainoiak dira eta beraz, euskaldunen etsaiak, ez orain bakarrik, baita errekonkista garaian ere. Arzalluzek ez du parekorik, bera bezalako gehiago izango bagenu..."

JOAKIN
INZAEAJko kidea
EL DIARIO
VASCO

"Orain arte saiatu naizen mendi guztiak ibiltzekoak ziren, baina honetan (Ama Dablam) soka batetik zintzilikatu beharko dut zenbait lekutan. Badakit hemendik aurrera kontu gehiagorekin ibili beharko dudala hotzarekin hanketan sentsibilitate handiagoa dudalako"

AMAIA
ARANZABAL
Mendizalea
EGIN



SHOWGIRLS

Larunbata: 17:00, 19:30, 22:30.
Igandea: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna)



CARAVANA AL ESTE

Igandea: 11:30.



EXTASIS

Osteguna: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ *Instinto básico* filmearen arrakastaren ondoren **Paul Verhoeven** zuzendariak eta **Joe Eszterhas** gidoiariak eginiko filme honek ez du aurrekoaren oihartzunik izan. Oraingo honetan Las Vegaseko *striptease* dantzarien mundua isladatu nahi izan dute. *Nomi Malone* gazteak (**Elizabeth Berkley**) arrakasta eta fama lortu nahi ditu baina diruak eta botereak agintzen duten giro horretan oztupo ugari aurkituko ditu.

▼▼ Mendebaldeko bizimodua uste baino gogorragoa omen da eta *James Harlowk* (**John Candy**) eta *Phil Taylorek* (**Richard Lewis**) ekialderako bidea hartuko dute. Bidean, besteak beste, indioei aurre egin beharko diete baina beren helburua lortzeko denetik egiteko prest daude. **Peter Markle** zuzendariak errodatutako komedia.

▼▼ **Mariano Barroso** zuzendariaren (*Mi hermano del alma*) azken filmek kritika onak izan zituen Berlingo jaialdian. *Rober* (**Javier Bardem**) bi lagunekin ibiltzen da eta hirurek euren familiei lapurretan egin eta ihes egiteko asmoa dute. Baina Roberrek bere lagun baten aita (**Federico Luppi**) ezagutu eta bere sareetan eroriko da...

Deiak

▼ **1964**an jaiotakoen bazkaria apirilaren 27an. Informazioa Plazako kioskoan.

▼ **Udalekuetan** begirale izateko interesa dutenek Xipizaro ludo-terekin eman dezakete izena apirilaren 27ra arte (76 23 76).

▼ **Juan Jose Altunaren** margotze erakusketa Bilboko Berta Belazagalerian.

▼ **Mendi irteera.** Alpino Gorka eta Pol-Pol Mendizale Taldeak datorren igandean, apirilak 21, Leizarraga-Iranzu mendi irteera antolatuko dute. Irteera goizeko 7.30etan Frontoitik egingo da eta txartelak Pol-Pol tabernan jaso daitezke. Bergarako mendizale guztiak gonbidatuta daude.

Ogia

▼ **Igandea 14:** Mizpildi.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 12:** Guallar.
- ▼ **Larunbata 13:** Estella.
- ▼ **Igandea 14:** Estella.
- ▼ **Astelehena 15:** Mozos.
- ▼ **Asteartea 16:** Camacho/Corcuera.
- ▼ **Asteazkena 17:** Puy/Irizar.
- ▼ **Osteguna 18:** Guallar/Amezua.

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3
☎ 76 16 14

Ibargarai, 8
☎ 76 54 73

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91



Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

Henry Bengoa Inventarium

Hika antzerki taldearen azken lana gaur Novedadesen

Hika antzerki taldeak "Henry Bengoa Inventarium" lana eskeiniko du gaur, ostirala, gaueko 10.30etan Novedades aretoan. Bernardo Atxagaren testuan oinarritutako lan honetan Joseba Aierbe, Miren Gojenola eta Mikel Laskurain aktoreek hartzen dute parte. Hika taldearen azken muntaia Getxoko azken antzerki jaialdian aurkeztu zen eta ordutik kritikaren eta ikuslegoaren oniritzia jasotu du. Jorge Amicheck eta Macarena Pombok egiten dute zuzendaritza lana eta musika, berriz, Joxan Goikoetxearena eta Joseba Tapiarena da.



Miren Gojenola eta Mikel Laskurain, Joseba Aierberekin batera izango dira taula gainean.

Atxagaren testoa

Antzerki lan honetan Henry Bengoaren istorioa kontatzen zaigu. Bi lagun aspaldi Bilbo laga zuen Henry Bengoaren bila Alemaniako Hamburgo hirira abiatuko dira baina ez dute bere laguna aurkituko. Bere apartamentuan Henry Bengoak la-

gatako gauzen inbentario bat egiten hasiko dira eta horren arabera ikusleek erabaki beharko dute Henry Bengoarekin zer gertatu den. Amaiera irekia du Bernardo Atxagaren lanak. Mikel Laskurain aktore bergararraren hitzetan, "ikusle bakoitzak bere amaiera izango du antzezlanaren amaitutakoan, ez baita argi-

tzen Henry Bengoari zer gertatu zaion. Nik badaukat neure bertsoa baina bakoitzak ikusiko du... Alde borretatik nabiko interesgarria iruditzen zait, horrelako amaiera batek zer pentsatu ematen du eta...". Mikel Laskurainen hitzetan, "Atxagaren testua guztiz errespetatu dugu eta esan daiteke antzerki errezital moduko bat dela, poesia ere tartekatzen delako".

Hika antzerki taldea 1989. urtean sortu zen Donostiako Antzerki Eskolan ibilitako lagun batzuk bil-

du ondoren. Ordutik batak bat kale antzerkia egin dute. "Chaplin tropela", "Aguro", "Charlotadak", "Babalibu babaliba", "Ongi etorri etsai hori", "La historia de Meruli, la muñeca hinchable" edo "Eta ohea egin gabe" lanak aipa daitezke. Orain, Atxagaren testua egokitzeko aukera izan dute eta idazle asteasuarra gustora geratu omen da Hikkakoek egindako lanarekin.

Sarrerak 800 pezetan (500 Gazte Txartelarekin) salduko dira.

Bilbotik Alemaniara joandako Henry Bengoaren bila ibiliko dira honen lagunak

AGIRREBEÑA

oinetakoak
arropa denda
lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

FERNANDEZ



Oihal puskak
Oihalak

San Antonio, 3
☎ 76 22 93

Ibargarai, 2
☎ 76 53 22

Hamabost egun

Hamabost egun, errez esaten da eta askatasunean oso azkar igarotzen dira, baina norbait askatasuna ukatzen zaionean eta gose greban dagoenean, bere gartzeleroek (espainiar eta frantses gobernuek) beraien legeak bete ditzaten, eternitate bilakatzen dira.

Inork ez dezala pentsa gose greba egiten dugula gustatzen zaigulako edo "linea" mantentzea nahi dugulako, edo masakistak garelako... Guztiz alderantzizkoa, ez zaigu gustatzen gose greba egitea baina gure gartzeleroek (Euskal Herriaren askatasuna ukatzen dutenek hain zuzen) behartu egiten gaituzte borroka mota desberdinak erabiltzera eta, oraingo honetan, hamabost eguneko gose greba izan da guk aukeratutakoa. Hau guztia, Euskal Preso Politikoen izaera eta Estatuto Politikoa aldarrikatuz eta baita behingoz gure kontua daramaten estrategia errepresiboarekin bukatzeko asmoz. Hau da, Euskal Herriko espetxeetara eramanak izatea eta dispertsioarekin amaitzea.

Gose grebak ez dira batere errezak inorentzat, batzuek hobeto daramatzate beste batzuek baino, gorputzaren arabera, fisikoki hobeto daudelako, espetxeetan igarotako urteak edo hainbeste gose greba egin ondoren gorputza oso zigortuta dutelako, ondorioak ez dira berdinak denontzat. Baina gauza bat argi dago eta oso ozenki esan behar da, guk, nahiz eta

gorputza edo fisikoki ahulduta egon, egiten ditugun gose grebak oso animaturik egiten ditugu, morala beti goian, badakigulako neurri batean edo bestean balio garriak direla. Duela hilabete eta gutxi beste gose greba bat egitera behartuta egon nintzen, bost egunekoa, funtzionari batzuk (zerbitzu buru bat tartean zegoela) lagun-kide bat jipoitu zutelako Jaengo espetxean. Guzti hau gertatu ondoren espetxeko zuzendaritza ni zigortzen saiatzen da, epaitegian kidearen jipoia salatu nuelako eta horren ondorioz gose greba baten sartu nintzelako protesta bezala. Saiatzen direla esaten dut, zeren Granadako JVPriari errekurtsio bat bidali ondoren, zigorra kentzen dit.

Nahiz eta jakinaren gainean egon gure gorputzak zigortu egiten ditugula gose grebarekin, inolaz ere ez dugu borroka mota hau baztertzeko eta gainera, ondotox dakigu bukatu berri dugun hau ez dela azkena izango eta zoritxarrez gure eskubideak errespetatu ditzaten beste asko egingo ditugula ziurrenik. Baina lehen esan dudana bezala, gure morala oso goian dago eta etsaiak beti edukiko gaitu aurrean borrokatzeko prest. Lehenbizi Euskal Herriari zor zaizkion eskubideen alde eta bigarrenik, Euskal Preso Politikoen kolektibo bezala gure eskubideen alde.

Gora Euskadi Askatuta!!

Presoak Euskadira!!

LUIS ETXEBERRIA P. (CORDOBako ESPETXETIK)

Erramu Zapatu historikoa

Bergarar askoren moduan, irten nintzen kalera Erramu Zapatu on bat pasatzeko asmoz. Denok dakigun bezala, bergararontzat egun handia, euskal giro jatorra izaten delako. Nik ez dakit ze antolatuta keta klase izan den aurten, baina tamalgarrria.


Goizean zehar ferian akatsik izan bazen, ez zen hainbeste igarri, baina benetan lotsagarria izan zen aizkolariak bere saioa amaitu ondoren ezpalak bildu beharrean, herriko plaza txeritoki bihurtu ondoren, bere hartan egon zela astelehen gozera arte.

Eta jaunok, eguna gaziki amaitzeko bertsolariak zine areto batean izan beharrean non eta frontoian.

Bertsolariak frontoian zirela jendeak jakin zuenean, oso jende gutxi joan zen, denok dakigunez eko arazoa izaten dela eta ez dela ondo entzuten; gainera, ez dakit ze soinu etxe kontratatu duzuen aurtegi honetan, desastre hutsa. Eta hori gutxi baltiz, zortzirehun pezeta ordaindu genuen sartu ginen lau katuek. Benetan tamalgarrria jaun andreok.

M. A. G. (NAN: 15.366.190)

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ

Larrain dantza ikastaroa

Jardunek antolatuta, Xamatz dantzataldeak Larrain dantza ikastaroa emango du apirilaren 23tik ekainaren 25era bitartean, asteartean 19.30etatik 21.00etara. Larrain dantza San Martzialetan dantzatzeko ohitura dago. Prezioa Jarduneko bazkideentzat 2.000 pzta.koa izango da eta gainontzekoek 2.500 pezeta ordaindu beharko dituzte. Izena emateko epea ostiralean, apirilak 19, bukatuko da. Argibideak Jardun Elkartearen, 76 08 19 telefonoan.

Zezenzaleen irteera

Zezenzaleak taldeak apirilaren 20an Biasteriko Santamaria anaien ganadutegia bisitatzeko irteera antolatu du. Irteera goizeko 8.30etan izango da Frontoitik, 10.30etan hamarretakoa iragarrita dago, ordubatean ganadu azterketa egingo da, 14:30etan bazkaria eta 16:30etan kapea. Itzulera, berriz, gaueko 10etan egingo da. Izen-emateak 6.000 pezeta balio du eta interesatuek Ganbara tabernara (76 55 75 telefonoa) jo dezakete.



Bergarako Objetoire Talde Antimilitaristaren mozioa onartu zen asteazkenean Plenoan. ARTXIBOA.

EAK bat egin zuen HBrekin intsumisioen mozioarekin

Asteazkeneko Plenoan EAK tripartittoa hautsi zuen BOTA Bergarako talde antimilitaristak aurkeztutako mozioan. Soldaduzka edo ordezk zerbitzu soziala egiteari uko egin diotenei Kode Penal berriak inposatu nahi dien inhabilitazioak ez onartzea eta ejerzitoari inolako laguntzarik ez ematea eskatzen zion BOTAk Udalarari. Era berean Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatean Bergarako Udalak ordezkartza izatea aipatzen zen. Aipatutako mozioa HB eta EAKo zinegotzien botoekin onartu zen, EAJk ezezko botoa eman zuelarik: PSE-EEko zinegotzia ez zen Plenoan izan. Aurretik EAJren mozio alternatiboa aztertu zen baina EAK eta HBk atzera bota zuten EAJren proposamena. Bertan, besteak beste, zera aipatzen zen "Espainiako Estatuako botere-indarrek bere horretan jarraituz gero ez du-

gu baztertzen desobediencia zibilerako edo erakundea intsumisio aitortzeko posizio erabakikorragoak hartzea".

Eztabaida Plenoan

Aurretik Senideaken mozioak eztabaida luzea piztu zuen. EAJk eta EAK Senideaken mozioaren bigarren puntua aldatu nahi izan zuten eta beren proposamena onartu zen. Senideakek presoen "Euskal Herriratzea" eskatzen zuten eta Udal Gobernuko alderdiek, berriz, "gerturaztea". Bi proposamenek ere *Ley General Penitenciariako* 12. artikulua eta *Reglamento Penitenciarioko* 9.a aplikatzea eskatzen zuten. Puntu honek polemika piztu zuen. Jesus Mari Garitanok (HB) EAJ eta EAREN jarrera salatu ondoren, presoen eta senideen egoeraren berri eman zuten eta jarraian Senideakeko hainbat kidek hitza

hartu zuten. Gerturatzeak zer esan nahi ote zuen galdetu zioten alkateari eta egoera lotsagarria zela esan zioten. "Dispertsioa zigor bat da eta Ertzantzaren jarrera ikusita ezin dugu zuengan konfidantzarik izan. Bestalde zure (alkatearen) mehatxua berehala aztertu zen eta gure bi mozio aztertzeke asko itxaron behar izan dugu. Era berean lazo urdina jarri zenuten eta guk berriz ezin ditugu presoen argazkiak jarri". Pleno aretoan alkatearen kontrako irainak entzun ahal izan ziren. Senideakekoek "Presoak Euskal Herrira" zioen pankarta erakutsi eta, herriko 14 presoen adierazgarri bezala, kateak banatu zizkien Gobernuko zinegotzietan. HBko zinegotzietan "Carceles" izenburuko pankarta jarri zuten. Plenoa suspenditzekotan egon zen oihuengatik baina azkenean aurrera egin zuen.

HILDAKOAK

- Jose Luis Ugarteburu Laskurain
Apirilak 8, 68 urte
- Hermia Crespo Samprieto
Apirilak 8, 63 urte
- Hilario Etxeberria Zangitu
Apirilak 9, 72 urte

JAIOTAKOAK

- Idoia Imaz Arzelus
Marxoak 29

Euskaldun zaharrentzako ikastaroa

"Euskeraz irakurri eta idazteko falta jatzuna hobetzeko" euskara ikastaroa antolatu du euskaldun zaharrentzat Akulu AEK euskaltegiak. Apirilaren 22an hasi eta maiatzaren 7ra arte iraungo du (40 ordu guztira) eta astelehen, asteazken eta ostiraletan emango da arratsaldeko 3etatik 5etara. 4.000 pzta. ordaindu beharko dira ikastaroan parte hartzearen. Informazio gehiago Akulu euskaltegian (76 05 18).

Sexualitate ikastaroa

Udaleko Ongizate Sailak eta Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentroak, sexualitateari buruzko ikastaroa antolatu dute emakumeei zuzendutako formazioaren barne. Ikastaroa apirilaren 23 eta 30ean eta maiatzaren 7, 14 eta 21ean egingo da, arratsaldeko 4retatik 6etara bitartean, Irizar jauregiko 2. pisuan. Doan izango da eta gehienez 25 lagunek parte hartu ahal izango dute. Izen-ematea apirilaren 19ra arte, 10etatik ordubatera eta 3retatik 8etara Irizar jauregiko 2. pisuan.

Ipintza Institutuaren oharra

Ipintza Institutuko Zuzendaritzak, herrian azken egunetan entzuten ari diren zurrumurruak direla eta, 1996/97 ikasturtean BBBko lehen kurtoa orain arte eman den bezala emango dela jakinarazi nahi die 8. mailan dauden ikasleen gurasoei. Beraz, aurrematrikula zabaltzen denean, BBBn matrikulatzeko aukera izango da eta bilera informatiboak egingo dira bere garaian.



TAVEXeko Bergarako lantegien etorkizuna kolokan ikusten dute Algodonerako langileek.

Protesta ekitaldiak Bergarako ehungintza enpresetan

Grebak Narvaiza, Algodonera, Tavesa eta Cotonesen

Narvaiza, Algodonera, Tavesa eta Cotones Agirrezabal ehungintza enpresetan langileen protesta ekitaldiak izan dira egunotan. Narvaizan apirilaren 2an greba eguna izan zuten eta aurretik ordubeteko geldituak izan ziren. Apirilaren 2an bertan langileek martxa errebindikatibo bat burutu zuten Mekolaldeko lantegitik Plazaraino. 100 bat langilek lanpostuei eutsi ahal izateko inbertsioak eskatzen zituzten eta Plazan ELA, LAB eta CC.OO sindikatuek sinatutako idatzi bat irakurri zen. Dirudienez Narvaizako zuzendaritzak soldatak %10 jeitsi eta lan orduak %10 igotzeko asmoa du. Era berean, Bergara eta Gasteizko lantegietan 38 langile sobran direla jakinarazi da.

Algodoneran eta Tavesan, berriaz, 2002. urterako plantila erdian berriztuko da eta langileei Estatu mailako konbenioa aplikatzeko asmoa dago. Sindikatuek bere mesfidantza azaldu dute agindutako 1.800 milioiko inbertsioaren aurrean. Asteartean greba egin zuten eta apirilaren 12, 17 eta 18rako ere greba deituta dago.

Cotones Agirrezabalen, berriz, mugarik gabeko greban dira. Soldaten igoera bat negoziatu ondoren, zortzi urtetan lanean izan den langile bat kalean geratzeko arriskuan dago eta lanera bueltatu dadila eskatzen dute langileek. Sindikatuek adierazi dute lan baldintzak jeistea ari direla eta horrek konflikto gorria suposa dezakeela.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Diapositiba emanaldiak eta mendi irteerak Mendi Astean

Igandeko argazki rallyeak emango dio hasiera

Iganderako iragarri den argazki rallyearekin emango zaio hasiera Pol-Polek, Udal Kirol Zerbitzuak eta Jardunek antolatu duten Mendi Asteari. Igandeko argazki rallyean parte hartu nahi dutenak, goizeko 8.30etarako Pol-Polera agertu beharko dira. Sari banaketa, berriz, apirilaren 18an arratsaldeko 7.30etan Pol-Polen egingo da.

Bestalde, astelehenetik ostegunera bitartean diapositiba emanaldiak izango dira: Astelehen, Koke Lasa eta Rafa Berasategik "Andeak" izenburukoa eskainiko dute UNEDen arratsaldeko 7.30etan; Asteartean, berriz, "Picos de Europa" izeneko emango du Javier Fernandezek toki eta ordu

berean; Asteazkenean, "Piraguekin munduan zehar" izenburuko diapositiba bilduma eskainiko du Txus Ruiz de Erentxunek UNEDen arratsaldeko 7.30etan; Ostegunean, bi diapositiba emanaldi izango dira: Alde batetik, Ramon Agirre "Marron" enak Zabalotegiko aretoan ikasleentzako eta bestetik, "Argelia" izenburukoak Javier Albisturren eskutik UNEDen arratsaldeko 7.30etan.

Larunbatean, hilak 20, Pol-Pol iturriko inguruak garbitzeko irteera egingo da San Martin plazatik goizeko 10etan eta igandean, azkenik, Pol-Polekin bi mendi irteera izango dira: Gazteak Gorbeara joango dira eta Helduak, oster, Lizarragara.



Asteazkenean inauguratutako edifizio berriak 400 milioi pzta. inguruko kostua izan du.

Senar-emazte bergararrak hilik kotxe istripuan Aste Santuan

Aste Santuak berri txar bat ekarri zigun Pazku astelehenean. Jose Luis Ugarteburu eta Herminia Crespo 68 eta 63 urteko senar-emazte bergararrak hilik gertatu ziren Bergarako bariantean izandako kotxe istripuan. Beste kotxe baten kontra aurrez-aurre tupust egin zuten eta eurekin zihozten alaba eta Herminiaren bi ahizpa larriki zaurituta gertatu ziren. Beste kotxeko gidariak zauri arinak jasan zituen. Jose Luis eta Herminiaren aldeko hileta elizkizunak asteazkenean izan ziren San Pedro elizan.

Bestalde, esan dezagun, Aste Santuan jende gutxi ibili dela kalean. Elizkizunak eta igandean Agorrosinen jokatu zen gazte mailako Bartzelona eta Ajaxen arteko partiduak bildu du jenderik gehien. Hala ere, kanpotik herria bisitatzeraz etorri direnak izan dira.

Turismo Bulegoak hil hasieran zabaldu zituen ateak eta domekara arte irekita izango da.

Bertako arduradunek adierazi digutenez 9 bisita gidatu egin dira eta guztira 180 bat lagun pasatu dira Turismo Bulegotik. Alemania eta Frantziatik etorri dira herria ezagutzera, baita Oviedo, Segovia, Jaen edota Salamancatik ere, baina gehien Kataluniatik; inguruko herrietako bisitariak ere izan ditugu.

Pazko igandean, Aberri Egunean, ikurriña jarri zen Udaletxeko balkoian, Udaltzak horrela erabaki zuelako aurreko asteko Plenoan. Herriko hainbat etxetako balkoietan ere ikurriñak zintzilik ikusi ahal izan genituen.

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behe
☎ 76 23 48



zumelaga

JATETXEA

San Antonio,
5 BERGARA
☎ 76 20 21

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

Joxe Iriarte

"Bikila"

ZUTIKeko kidea

Joxe Iriarte "Bikila" Zutik-eko kidea Bergarako Elkarriren eztabaida foroen aurkezpenen izan zen orain dela pare bat aste. "Bikila"k Gizartea, gatazka gainditzearen eragile izenburuko hitzaldia eman zuen.

Nola baloratzen dituzu eztabaida foro hauek?

- Nire ustez gaur egunean garrantzi handia hartzen du jendea eztabaida bat sortzeko kapazitateak. Biolentzia edo beste gai baten inguruan eztabaidatzen hasteari garrantzi handia ematen diot. Gaur gatazka nondik datorren, nola dagoen gaur egunean eta irtenbidea izatekotan nondik joenezakeen.

- Nondik jo behar dela uste duzu?


- Nire ustez negoziazio politiko batera jo behar

dugu, bestela gatazka per secula seculorum jarraituko du eta.

- Nolako da alderdien jarrera?

- Gaur egunean garbi dago alderdi batzuk (PP eta PSOE, nahiz eta PSOE barruan negoziazioaren aldeko iritzia egon) negoziazioaren kontra dardela. Bestalde, PNVk, EAK eta beste hainbatek negoziazioa begi onez ikusiko luketela esaten dute, baina praktikan negoziazio hori bideratuta ez dagoenez, negoziazioaren kontra dauden hainbat tokitan sartzen dira, Ajuria Eneako hitzarmenean eta antzekoetan, adibidez. Eta HB negoziazioaren alde dago ETaren alde dagoen heinean. Baina kontua da ez dugula lortu negoziatioari bide bat irekitzea eta alderdiek daukate horren erantzunkizuna.

"Biolentziaren gatazkan herria ez da espektadore pasibo izan behar, ahotsa altxatu behar du"



"Negoziazio politiko batera jo behar dugu".

- Eta gizarteak zein erantzunkizun dauka?

- Gizarteak biolentziaren adierazpena jasaten du. Herriari interesatzen zaio espektadore pasibo ez izatea eta bere ahotsa altxatzea. Baina herriaren baitan alderdi politikoak daude. Dena den, nahiz eta bakoitzak bere aukera izan, inportanteagoa da nire ustez negoziazioaren aldeko mugimendu autonomo bat sortzea.

- Elkarriren lana zelan baloratzen duzu?

- Ondo ikusten dut baina horrek ez du esan nahi Elkarrik egiten dituen eta esaten dituen gauza guztiekin ados nagoenik. Negoziazio eta disentsioaren aldeko jarrera garbia duela uste dut, batez ere argi eta garbi esaten

ten duelako negoziazio hori politiko izan behar dela, inoiz ez du esaten ETak armak utzi behar dituenik eta kitto, edo inoiz ez du esaten negoziatioa bakarrik, baizik eta negoziatioa edukin politiko batzuen bitartez. Nere ustez Elkarrik jarrera positiboa dauka.

- Gizartean dagoen banaketa gainditu daitekeela uste duzu?

- Oso zaila da, bakoitzak bereari eusten diotako. Nire ustez konsziente baldin bagara egoera honetatik atera egin behar gara, bakoitzak bere indarrak baliatu behar du eta horren alde lan egin. Hori aurrera baldin bada aterako gara eta bestela gaur gauden bezala jarraituko dugu.

MUGICA

GOXOTEGIA



Artekale, 3
☎ 76 10 34

- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak



DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

Osasuna

Psoriasisia

- Zer da psoriasisia?

- Azalaren gaisotasun inflamatorioa da, ez da kutsakorra baina bai, ordea, hereditarioa. Baina hereditaria poligenikoa da, faktore askok daukate eragina. Edozein adinetan ager daiteke psoriasisia baina orokorrean 20 urtetik 30 urtera bitartean agertzen da. Gaisotasun nahiko orokorra da eta biztanleriaren % 1ean du eragina. Nahiko errotuta dagoen gaisotasuna da.

- Zeintzuk dira sintomak?

- Psoriasiak ez du hazkura sortzen, gaisotasun asintomatikoa da. Batez ere arazo estetikoa dakar gaisotasun honek. Ezkata zuriz osatutako plaka gorriak agertzen dira azalean. Gehienetan buruzoruan, ilean, belaunetan, ukalondoetan eta atzazkaletan agertzen dira plakak.

- Noiz sortzen da?

- Kasuen %40an stressaren eraginez agertzen da. Hala ere, forma kliniko ezberdinak daude eta espezialista batek hori aztertzea da onena. Dena dela, gaisotasun kronikoa da eta noizean behin be-

rriro azalduko da. Batzuetan gaisoa garbi dago baina handik gutxira plakak ager daitezke. Dena den, kasu gehienetan, esan daiteke, %70ean, eguzkiak hobetu egiten duela gaisotasuna.

- Zein da jarraitu be-



CRISTINA GARCIAINDIA
(Dermatologoa)

harreko tratamendua?

- Tratamendua psoriasis tipoaren eta kaltetutako azaleraren arabera finka-

"Psoriasisia gaisotasun kronikoa da eta noizean behin berriro azalduko da"



Buruzoruan, belaunetan, ukalondoetan eta atzazkaletan agertzen da.

tu behar da. Lehenengo pertsona osasuntsua den aztertu eta gaisoaren balorazio orokor bat egin beharra dago, askotan artritisaekin lotzen baita psoriasisia. Hala ere, nagusiki 3 tratamendu ezberdin daude. Lesio txikiak direnean kremak har daitezke. Psoriasisia daukagunean azala azkarregi berritzen da eta kortikoidak azaleko zelulen berritze abiadura gutxitu egiten du. Baina, beti ere, kremak medikuaren agindupean hartu behar dira, bestela beste ondorio batzuk izan daitezke eta (biloa edota ildasken agerpena esate baterako).

- Zeintzuk dira beste aukerak?

- Beste tratamendu bat Puva deiturikoa litzateke. Izpi ultramoreen makinara sartu baino 2 ordu aurretik pastila batzuk hartu behar dira eta ondoren minutu batetik 10 minutura bitarteko egonaldiak egin makinan. Hau tratamendu luzeagoa da, hilabeteetako, batez ere psoriasisia gorputzeko azaleraren %60an zabaltzen denean jarraitu behar dena.

Azkenik pastilen tratamendua legoke. Dena den, psoriasisia daukanak ezagutzen du bere psoriasisia nolakoa den gutxi gorabehera eta medikuak esango dio zein den tratamendurik egokiena.

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



DEBA

GARAIA


INMUEBLE ETA FINANZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA


Bolu 24 behea BERGARA (Gipuzkoa). Telefonoa eta faxa: (943) 76 30 57



FILA modeloa




NALIA modeloa




ONDA modeloa



OXFORD modeloa



ACQUA modeloa



SAVOY modeloa

ADI ORAIN!! Eskaintza bereziak apirilaren 15era arte

FAGOR 

RAI
%30
GUTXIAGO

Sukaldeko
altzari berriak
jartzeko
6 arrazioak

Bergaran ia 100 lagun dabilta yoga egiten, yoga zer den eta Indiako filosofia ezagutu nahian. Jubilatua eta etxekoandreak dira, batez ere, Jose Luis Armendia eta Virginia De Miguelen esanetara arnasketa, erlajazioa eta ariketak egiten dituztenak.

Jose Luis Armendiak duela 18 urtetik dihardu yoga egiten. Ikastaro batean hasi zen, ekarri zion onuraz jabetu, lan finkoa laga eta bizitzaren gidaritzat hartu zuen yoga.

Ordurako eskaera handia ikusten zuen, Bergaran 28 pertsonako ikastaroa emana baitzuen.

81ean Kanadan izan zen klase praktikoak nola eman, yoga nola erakutsi, yoga filosofia, gorputz anatomia, e.a. ikasten eta hona itzuli zenean erakusten hasi eta Arrasaten elkarte bat sortu zuen. Gure inguruko herririk gehienetan ibili da eta oraindik ere badaibil arrasatearra yoga erakutsi eta yogaren filosofia zabalduz.

Zer ez da yoga?

Jose Luis Armendiaren ustez yoga zer den baino errazagoa da zer ez den esatea, "yoga ez da gimnasia edo kirola, ezta sekta edo erlijioa ere. Yo-

gan ez dago konpetizio edo lehiarik, ez norberaren buruarekin ez inorenarekin". Yogazaleak txorotzat edo arrarotzat jo izan dira, baina Jose Luisen ustez yoga ezagutzen ez delako esaten dira horrelakoak. "Dagoen

informazio asko txarra da edo oker dago, baina gero eta mediku tradizional gebiago datoz bat yogaren filosofiarekin eta elikadurari dagokionez, esaterako, yogak defendatzen duena gomentatzen dute".

Zer da yoga?

Yoga bizitzeko filosofia da; horren arabera nork bere mugak eta bere burua, den bezalakoa, onartu behar ditu. Hori lortzeko yogaren oinarriko bost printzipio daude:



Bergaran 100 bat lagun dabilta yoga egiten, yoga zer den eta Indiako filosofia ezagutu nahian.

Yoga: Bizitzaren beste filosofia bat

KONDE




Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak



Yoga ez da ariketa fisikoetara edo postura batzuetara mugatzen.

ariketa fisikoa (dinamikoak eta estatikoak), arnasketa, erlajazioa -fisikoa, psikikoa eta izpirituala-, elikadura (barazki eta esnekietan oinarrituz) eta jarrera mental positiboa.

Jarrera positiboa izateak berebiziko garrantzia du Jose Luisek dioenez *"bitzegiterakoan jarrera positiboa transmititzea ezinbestekoa da, bizitzan jarrera positiboa ematen digulako.*

Adibiderik garbiena botilarena da: erdia butsik dagoela esan beharrean, erdia beteta dagoela esatea oso garrantzitsua da. Mezu positiboa txikitatik adierazteak pertsonaren garapena eta sor daitezkeen konplejoak-eta saihebs ditzake".

Halere, yoga ez da bost horietako printzipio bat bakarrik, dena baizik, eta dena dago lotuta. Yoga hitzak batasuna esan

nahi du; hitzaren izana betez, batasunak gizakia batasun-osotasunean ulertzen du. Honela, batetik, burua edo kontzientzia hartzen du kontutuan; bestetik, gorputz fisikoa; azkenik, sentimenduak edo emozioak.

Burua kontrol mentaltaren, meditazioa eta kontzentrazioaren, bidez lantzen da. Gorputza ariketa fisiko eta masaiaren bidez. Emozioak psikote-

rapia edo garapen pertsonalarekin lantzen dira.

Yoga mota desberdinak daude eta denetan oinarria aitaturako bost printzipioak dira. Hemen egiten dena psikofisiologikoa da, hau da, Hatha yoga. *"Yoga hain mundu zabala da, yoga psikofisiikoa ikastea, bizi guztirako lana da".*

Oreka bilatu, ez izan fanatiko

Jose Luisen esanetan yogaren oreka bilatzea eta fanatikoa ez izatea da garrantzitsua. Yoga oso malgua denez, pertsonaren malgutasuna onartu egin behar da. Yogak badiu idealak, baina helburuak lortzen ez badira, onartu egin behar da; hemen gaude eta geure oreka bilatu behar dugu. *"Ez gara Indian bizi eta askotan etxean bazkaltzen ez dugunez, ezin gara erabat barazkijale izan. Tabernetan bazkalduz gero, esaterako, ez gara basiko janari berezia eskatzen, ezta Malgua izan behar da eta dagoena onartu"* dio Jose Luisek. Helburu iristen ahalegindu behar da, baina garrantzisuena

ARANTXA ODRIUZOLA Gizarte laguntzailea


Gizarte Ongizate sailak bakarrik emakumeentzat antolatzen ditu yoga ikastaroak?

- Lehen emakumearen zerbitzua zegoen. Orain zerbitzu hori ez dago, baina egiten zituen lanak eta ekintzak Ongizate Sailera pasa dira; ekintza horietako bat da yoga. Berrez, helburua ez da yoga egitea, emakumeek ikastaroak egiteko aukera izatea baizik. Horregatik dago emakumeari zuzenduta.

- Badira yoga egin nahi duten gizona ere.

- Bai, eta guk ere jaso ditugu eskariak, baina gure zeregina ez da herritar guztientzako ikastaroak antolatzea, arazoren bat edo behar bat dutenentzat antolatzea baizik.

Horrela, emakumea "marginatutzat" jotzen denez -eztabaidagarria da-, yoga ikastaroa eskaintzen zaio. Denentzat izatekotan, beste Sail batetik hartu beharko luke antolatzeko ardura, ez litzateke gure ardura izango. Kirolak eta Kulturari eman diegu eskarien berri eta jakinaren gainean daude.



ez da helburua bera, momentuko egoeraren oreka baizik, hau da, 'hemen eta orain' kontzeptua. *"Yogan ez dago ez iraganik ez etorkizunik, oraina besterik ez dago maila guztietan: fisikoki, psikikoki, emozioetan..."*

Klaseetan 3 printzipio

"Nik arazo ugari izan nuen asmarekin eta arnasa ezin nuelako sudurretik ondo hartu. Yoga egiten hasi nintzenetik ez dut asmaren kontrako botikarik hartu, eta arnasa hartzeko ere ez dut arazorik. Horretarako arnasketa ariketak egin eta arnasketan kontzentratzen naiz. Erabateko kontrola lortzea zaila da, baina poliki-poliki lortzen da" dio Jose Luisek. Berarentzat onuragari baldin bada, besteentzat ere hala delakoan dago. Jose Luisek ematen dituen ikastaroetan yogaren bost printzipioetatik 3 lantzen ditu: ariketa fisikoak, arnasketa eta erlajazioa. "Elikadura norberak etxean egin eta zaindu dezake".

Emakumeak nagusi

100 lagun inguru dabilta Bergaran yogan, ia denak emakumeak eta etxeoandreak. Egoitzan, Martokuan eta jubilatuetan elkartzen dira. Jose Luisen esanetan, oro har,

yoga egiten duten %75 emakumeak izaten dira. Yoga batasuna baldin bada, sexu aldetik ere dementzat, bai emakume eta gizonezkoentzako ikastaroak antolatu behar harko lirakeela dio J. Luisek.

Tinkotasuna eta erosotasuna

Yoga egiteko ez da aparteko arintasunik behar. Yoga, Jose Luisek argi dioen bezala, ez da ariketa fisikoetara edo postura batzuetara mugatzen. *"Ariketa yogaren bost printzipioetako bat besterik ez da. Postura batera iritsi ezean, ez da behartu behar; gauden posturan geratu, onartu eta lasai egongo gara. Tinkotasuna eta erosotasuna lortu behar dugu gauden posturan".*

Maisuaren beharra

Yoga bakarrik egitea zail samarra dela dio Jose Luisek. *"Ni ariketak bakarrik egiten ari banaiz, nire gauzetan pentsatzen hasiko naiz, eta ez naiz nire gorputzean, arnasketan edo 'hemen eta orain' kontzentratuta egongo. Hortaz, maisuak komenigarriak dira, bidea erakusten dutelako. Hala ere, helburua da ikasleek nahi dutenean euren kasa egiteko gauza izatea".*



ARANTXA ARANA
"Psoriasis ia joan egin zait"

Jubilatutakoan, duela hiru urte, hasi nintzen yoga egiten. Aurretik ez nuen oso arrotza, alabak ere egiten zuelako. Yoga niretzat erlajatzen ikastea eta besteak entzuten eta errespetatzen ikastea da.

Yoga egiten dudanetik hobeto sentitzen naiz, psoriasis ia joan egin zait eta arazoan aurrean ere beste jarrera bat dut, lasaiago bizi naiz. Etxean ere egiten ditut eta sarri klaseetara joan beharrik ez dut izaten, baina gustora egoten naizelako joaten naiz.

ARACELI BAEZA
"Orain ez gaituzte zorotzat hartzen"



Lehen jendeak ez zekien yoga zer zen; orain, berriz, jendeak badaki ez dela sekta bat eta ez gaituzte jende arrarotzat hartzen. Ni orain dela 7 urte hasi nintzenetik, astean hiru egunetan joaten naiz yogara.

Yoga bizitzeko modu bat da eta hortik komeni zaidana hartzen dut. Elikadurari dagokionez, orain, udaberrian, esaterako, astean birritan fruta jaten dut, gorputza garbitze aldera. Orain lasaiago bizi naiz, dentistarengana-edo joaten naizenean ere lasaiago egoten naiz.



BLANCA CALVO
"Niretzat yoga gimnasia arina da"

Oraingoa dela 6 urte hasi nintzen yogan. Niretzat yoga gimnasia arina da, arnasa ondo hartzen ikasten duzu, erlajatzen lagundu eta hobeto sentitu eragiten dizu.

Ingurukoei eta familiartekoei esaten diet yoga egiteko, asko laguntzen duela eta. Janarietan zaintzen ere ahalegintzen naiz.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUTEGIA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA


Osasunaren nazioarteko eguna izan dela eta, osasuntsu egoteko zer egiten duzu?



Julian Aiastui

64 urte, jubilatua

Denetik egin behar da, zaindu, kirol pixkat egin... Nik goizetan menditik buelta bat egiten dut sasoian egoteko.



Alberto Arizaga

39 urte, langilea

Normalean janari garbiak hartzen ditut eta kirola ere egiten dut: mendian, footing pixkat eta squasha.



Ana Mari Gallastegi

43 urte, etxekoandrea

Bizimodu normala egiten dut, besterik ez. Baina normala esaterakoan ez erre, parrandan ez ibili eta hori esan nahi dut.



Amaia Gómez

18 urte, ikaslea


Kirola egiten dut, futboleant jokatzen dut, besterik ez. Medikuariengana bakarrik gaizki nagoenean joaten naiz, bestela ez.



Casi Baladrón

25 urte, langilea

Ez dut ezer berezirik egiten. Eta ezer egin gabe osasunez ondo nagoela uste dut.



Jose Martin

18 urte, langilea

Hiru hilabete behin errebisioa egiteko ohitura daukat eta futboleant eta korrika ere ibiltzen naiz.

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA



LIZAR
ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



Horoskopoa ala agintera?

Horoskopoeak geroa iragarri beharrean, irakurlearen etorkizuna proiektatzen dute. Beraz, horoskopoearen funtzioak eta helburuak ez dira aditzera eman nahi direnak. Komunikabideetako horoskopoeak egiterako orduan, bide ezberdinak aukera daitezke, esaterako astrologo batek egitea, erredakzioko kazetari batek asmatzea edo aurréz ondo pentsatutako horoskopoa idaztea. Laurence Bardinek horoskopoei buruz eginiko ikerketa baten arabera, horoskopoeak irakurlea erabiltzen dute komunikabidearen ideologia eta bizimoduaren arabera. Ikerlari honek analisi hau egiteko, Elle aldizkari frantsesa hartu du adibidetzat, tankera honetako testuen tratamendua aurrez prestatuta dagoela agerian uzteko. Ikerketa honen alde tematikoa eta lexikoa kontutan hartuz, Bardinek aipatutako ondorioa atera ahal izan du.

Lexikoan aurki daitekeen adibiderik esanguratsuen aditzen denboran ikus daiteke: horoskopoeak etorkizuna auresan behar duela suposatzen bada, testuko aditzen portzentaia nabarmen bat geroaldian egon beharko litzateke, baina Elle aldizkariaren kasuan, geroaldian dauden aditzak %15a baino ez dira eta gehien agertzen den aditz denbora agintera da %39ko portzentaiaz. Alde tematikoari dagokionez, aldizkari haren asmoa ez da geroa auresatea, baizik eta zenbait balore irakurlearengan inposatzea, esaterako indibidualismoa, autoanalisis (laguntza morala eskeiniz) eta konformismoa. Elle aldizkariako horoskopoearen edukina kontutan hartuz, Bardinek dio %52a narzisista dela. Bere ustez komunikabide konkretu honen nahia, horoskopoez baliatuz, izaera narzisista bultzatzea eta jokabide jakin baten balore eta modeloak oinarritzea da. Elleren horoskopoearen helburua irakurlea ziorontsu izateko jorratu behar duen bidea finkatzea, beti ere egozentrismoaren barnean. Badirudi horoskopoeak ez dutela egi haundirik esaten, baina hala ere jende askok egunero lehen orduan egunkaria irakurtzean aukeratzen duen sail bat da.

Maria GOMEZ



Itoitz-ekiko elkartasuna

Kaiolan sartu dituzte Itoitzen Aste Santuan kableak ebaki zituzten txoriak. Nik euren jarrera ausarta txalotu egiten dut. Hamar urtetan bakean borrokatu da Itoitzeko proiektuaren aurka, kalean eta epaitegietan ere bai.

Zeinek eta Audientzia Nazionalak berak erabakita du obra legez kanpokoa dela. Hala ere, Itoitz bailarako hainbat sail Urrobi eta Irati ibaietako urez beteko dituen horma gora zihoan eta agintariak lege aldaketa prestatzen ari ziren. Presa handia zuten presa lehen bait lehen bukatzeko.

Eginda gero, salda bero! Izorrai, momentuz geldira obra ilegalak. Ekintza egin zutenen aurka guardia armatuek erakusten duten amorrua handia izan da gainera. Bat eritetxean da tinpinoa hautsita.

Euskaldunok imajinazioa eta indarra erabili behar, beste erremediorik ez dugu gure lurra defenditzeko; legea eta epaileen aginduak ere ez dituzte betetzen eta. Zein da bekatu haundia, kableak moztea ala urtegia egitea?

Beraz, kartzelan sartu behar direnak, proiektua ilegala dela jakinik, lanak aurrera jarraitzeko agindua eman dutenak eta orain gazte "erradikal" horien ekintza salatzen dutenak dira.

Lanpostuen galera, kalte ekonomikoak eta abar gogoratzen dituzte. Erriberan sortu diren espektatibak, edota lanpostu horiek, euren erruz sortu dira. Beraz langile eta nekazariak euren pena eta amorrua agintari horien aurka zuzendu beharko lukete.

Euskal Herrian hainbat urtetan borrokatu da arrazoiaren alde eta euskaldunok arrazoa jorratzen jarraitu behar dugu. Itoitzeko bailaran txoriek euren kabia izan dezaten borrokan jarraitu beharko da.


Jon ALTUNA

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



Barrenkale, 31

Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

Masterreka 24

**Nepal, India eta Hego
Amerikako jantziak**

Masterreka, 24 BERGARA

■ **Realeko jokalaria Bergaran**

Aranzabal Lagunartearen aurkezpen ofiziala egin zen pasa den apirilaren 1ean **Pertxa elkartean**. Bertan, besteak beste, hauek izan ziren: **Agustin Aranzabal, Valeri Karpin, Alberto Albistegi** eta **Iñigo Arteaga** Realeko jokalaria (beheko argazkian), **Jose Luis Astiazaran** eta **Alberto Garate** Realeko kontseilariak, **Javier Otegi** gerentea eta **López Rekarte, Castillo** eta **Amatriain** "Sanse"ko jokalaria. **Iñaki De Mujika** Herri Irratiko kazetariak egin zuen aurkezpena eta Agustin

Aranzabalek eskerrak eman zizkien bere jarraitzaileei peña osatzeagatik. Bere lagunek, berriz, Agarreko garaixearen



plaka bat eman zioten eta Realeko jokalaria eta zuzendaritzako kideei hainbat opari. Primeran afaldu ondoren, **Luis Elorza** Pertxako presidentea agenda dotore bat eman eta lehen gola Pertxakoei dedikatzeko eskatu zion Aranzabali. Guztira 66 lagun dira Aranzabal Lagunartean eta euren asmoa Reala eta Aranzabal ahal duten guztietan jarraitzea da.

■ **Mizpirualdera bisita**

Zezenzaleak taldekoek **Mizpirualde** erresidentziako lagunekin bazkaria egin zuten pasa den martxoaren 31n egoitzan bertan. Giroa ezin hobea izan zen eta zezenzaleek pasa den urteko txekorketako kartela eman zieten erresidentziakoei bazkalostean. Jarraian dantzaldia izan zen eta batzuek zezenaren aurrean dantzan baino trebeagoak direla erakutsi zuten... Bestalde, Zezenzaleak taldeak apirilaren 20an Biasterira irteera antolatu du Santamaria ganadutegia bisitatzeko (izen ematea Ganbara tabernan egin daiteke). Honez gain, maiatzaren 11n Pazkuetako txekorketaren kartela ezagutu ahal izango dugu.



ZUBIAURRE
aroztegia

Sarrerako eta barrurako ateak, horma armairuak, tarimak, egurrezko eta PVCzko leihoak, era guztietako arotz lanak...

Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

Usoa Pub

☎ 76 38 57
Irala, 1

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

■ **Chulillan**

Musika Eskolako Orkestakoak Aste Santua Chulillan (Valentzia) igaro dute. Ostiralean Chulillako plazan eta Udaletxean harrera ofiziala egin zieten; **Luis Abajo** Kultur zinegotziak eta **Jesus Alvarez** Musika Eskolako presidentek opariak elkartrukatu zituzten bertako



agintariekin. Larunbatean eta igandean, berriz, Chulilla eta inguruko herriak bisitatu zituzten: Liriako Union eta Primitiva kontserbatorioetan izan ziren eta Chulillako "El charco azul" izeneko kanoira ere irteera egin zuten. Igandean, berriz, Chulillako prozesioa ikusi ondoren, kontzertua eman zuten Parrokian. Amaieran Chulillako ereserkia ere eskeini zuten bildutakoen gozamenarako. Guztira 68 lagun izan dira Chulillako Fuencalienteko balnearioan. Bestalde, **Sociedad Musical La Lira**, Chulillako Banda, Bergarara etorriko da datorren azaroaren 1eko zubia aprobetxatuz.

Zertan dihardute ba?



Amaia Aranzabal mendizale bergararra eta Josu Bereziartua azpeitiarra Himalaiara abiatu ziren joan zen astean, Nepaleko Ama Dablam (6.856 m.) mendiaren gailurra zapaltzeko asmoz. Ama Dablam Himalaiako mendirik politenetakoa omen da eta Josuk eta Amaiak hilabete inguru emango dute Nepalen. Amaia 1992an Cho Oyun (8.201 m.) jasandako izozketen ostean Himalaiara itzultzen den lehen aldia da. Orduan zortzi milako mendi bat egiten zuen lehen emakume euskalduna izan genuen. Berak aipatu duenez, "*Ama Dablamek ez du aklimatazio gebiegirik eskatzen eta, bestalde, inguru hori nabiko ondo ezagutzen dugu*". Nepaleko gobernuak debekatuta izan zuen 1979ra arte Ama Dablam eskalatzea.

■ **Ezkontzarako opariak**

Jesus Murgizu eta **Laura Laskurain** bergarar bikotea saritua izan da Radio San Sebastianek antolatutako "Novios del 96" saioan. Aurten ezkontzear dauden Gipuzkoako bikoteek parte hartu ahal izan dute lehiaketan eta Laura eta Jesus izan dira irabazleak. Sari modura, bien trajeak, eraztunak, astebeteko bidaia, afari bat, komuneko altzariak, maletak, tresillo bat eta telefono mugikorra eskuratu dute. Uztailaren 20an ezkonduko dira. Zorionak bieii!



Pepelu
Ilepaindegia
 Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

ARGI PLASTIC
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, atekak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

 Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
 Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
 Tfnoa: 76 55 02 Faxes: 77 11 30

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

Ines Rubio

Orain dela 28 urtetik Garate dendan dabil lanean Ines; 64 urte ditu. Jendearekin duen harremanagatik gustatzen zaio hainbeste dendari lana.

- Dendan zerbaitegatik gorritu izan zara?

- Egia ez den zerbait esan didatenean eta nik hala dela dakidanean.

- Dendari izan ezean zer izatea gustatuko litzaizuke?

- Erizaina.

- Harreman publikoetan ondo moldatuko zinateke.

- Bai, egia, lan hori nahiago dut.

- Irribarrea zure lanaren zati da?

- Berezkoa eta bat-batekoa dut.

- Jubilatzeke pozik?

- Lehenago ere izan dut erretiratzeko aukera, baina ez dut nahi izan.

- Gero zer egingo duzu?

- Eskulanak, entretenigarri polita izango da.

- Aste Santuan oporrik izan duzu?

- Bost egun, Bergaran ibili naiz etxe haundiak eta monumentuak ikusten.

- Zerbaitek harritu zaitu?



"Oporretan Bergaran ibili naiz; ez nekien hainbeste eskudo zegoenik. Etxe haundi gehien dagoen euskal herria da. Lehenago jubilatzeke aukera izan dut, baina ez dut nahi izan"

- Eskudoek. Eta Bergara da etxe haundi gehien duen euskal herria.

- Zuretzat zein ospakizun da berezia?

- Urtean behin lagunok egiten dugun bazkaria.

- Lagunartean gehien gustatzen zaizuna?

- Kariñoa eta berriketa.

- Zein erregalarekin asmatzen da beti?

- Emakumeari lorak erregalatu gero, gizonari zedozer pertsonalagoa eginaz.

- Txikitako oroimen bat?

- 8 bat urte nitueneko ur haundiak.

- Bart egin duzu ametsa?

- Sekula ez naiz akordatzen ametsekin.

- Sukaldari ona zara?

- Inoiz ez dut kozinatu, ingurukoek egin dute nire partez.

- Yoga egin duzu sekula?

- Asko ibiltzen naiz, baina kirolik eta yogarik ez dut sekula egin.

- Janari txinarra gustoko duzu?

- Ez, euskal janaria gustatzen zait.

- Bideoan zer grabatzen duzu?

- Argazki kamarak, bideoak... ez zaizkit gustatzen.

- Kosmetikorik erabiltzen duzu?

- Hidratantea, besterik ez.

- Eguzkia hartzeko ohiturarik?

- Eguzkia oporretan gustatzen zait, bestela moteldu egiten nau.

- Erantzungailua entzutean nola erreakzionatzen duzu?

- Moztu egiten dut, ez dut mezurik lagatzen.

Cristina Garciandia Mujika

DERMATOLOGIA

BENEREOLOGIA

MEDIKUNTZA KIRURJIKOA

San Martin Osasundegia
Ramón María Lili, 2 (Ate nagusia)
Telefona: 76 59 39

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



ETXEBIZITZA

Pisua salgai. 80 m2 eta 6 m2ko terraza. ☎ 76 03 75.

Etxea salgai Koldo Eleizalden. Prezio interesgarria. ☎ 76 35 20.

Pisua salgai Barrenkalen. Berriztuta. ☎ 78 70 30.

Pisua salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 43 22/76 56 07.

Pisua salgai San Antonion. Amueblatuta. ☎ 76 05 99.

Etxea salgai Katabian. Amueblatuta. ☎ 76 44 55.

Pisua salgai Maduran. ☎ 76 45 03.

Garajea salgai Ibargarain. 22 m2. ☎ 76 44 25.

Garajea salgai Santa Marian. ☎ 76 29 36.

Garajea (2 plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

Pisua salgai herri erdian. ☎ 76 39 64 (21.00-23.00).

Pisua salgai Antzuolan. ☎ 76 25 32.

Pisua alokatzen da Zubietan. ☎ 76 47 28 (gauz).

Garajea salgai Bolun (2 plaza). ☎ 76 54 11.

Garajea alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 29 33.

DENETARIK

Karro-karabana prezio onean salgai. ☎ 76 00 56.

Kawasaki GPZ 500 motorra salgai. ☎ 76 33 46.

Nikon 70210 "D" objetiboa salgai. B + W filtroa, parasol originala. Erabili gabe. ☎ 76 52 31 (Jesus, gauz).

Hi-Fi kate txiki bateko bi baffle salgai. ☎ 76 52 31.

Suzuki GSx 600F motorra salgai. ☎ 76 20 26 (gauz).

Golf 1600 kotxea (2. seriekoa) salgai. SS-V matrikula. ☎ 989 58 40 24.

Ume bat bizikletan eramateko sillin bat eta txaketa termiko bat saltzen ditut. ☎ 76 52 31.

Renault 4 F6 kotxea salgai. ☎ 76 22 11.

Ford Sierra kotxea (SS-AD) salgai. ☎ 76 33 10.

Boxer txakurkumak salgai. ☎ 76 28 68 (21.00-23.00).

Ordenadore bat salgai. ☎ 76 27 59.

Lancia Delta GTI kotxea salgai. ☎ 76 59 40 (Jorge).

Montesa H7 Enduro motorra (250 cm3) salgai. 100.000 pta. ☎ 76 31 40.

Pekines txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

486 Compaq ordenagailua salgai. ☎ 76 00 91.

Opel Corsa (SS-U) kotxea salgai. ☎ 76 46 54.

Gimnasia egiteko motorizatutako 6 mahai salgai. Egoera onean ☎ 76 13 46.

LANA

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Errenta aitorenak egiten ditut. ☎ 76 34 95 (Ander).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 48 65 (Paki).

Klase partikularrak ematen dira. ☎ 76 33 26.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 18 75.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 38 00.

Neska euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 15 12.

Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 12 77 (Maite).


Neska batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 46 14 (Pili).

Aleman diplomatuak arratsaldez klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

Lan egiteko emakume bat eskeintzen da. ☎ 76 38 83 (eguerdiz eta gauz).

Ordenadorez lanak pasatzen dira. ☎ 76 27 59.

Zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 11 11.

ARREGUI, E.M.**ARROZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

OILAGORRA**TABERNA**

Barrenkale, 21 BERGARA




gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

Aranzabal**OIHALAK**

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

BONOFOTOA



Jesus Arizmendi

Jesus Arizmendi jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. **Andres de Ondartza** zen Errege Katolikoentzat eta Felipe I.a eta Carlos V.a. erregeentzat lan egin zuen eta argazkian agertzen zen etxe dotorearen izena zeraman bergararra. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Jesus Arizmendi**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da eliza honen izena, zein auzotan dago eta noiz ospatzen da bere eguna?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	40	16	77	28
2. BAR CANALEJAS	34	15	52	18
3. MONGATXURRAK	31	15	68	26
4. MADURA INDUSTRIAS GOL	29	15	47	33
5. OGIZUN	26	15	47	46
6. KABIA	19	14	31	37
7. ARLOTEAK	18	15	26	37
8. BILDURBAREK OPEL/LAM	16	15	36	45
9. ORTZI	16	15	25	43
10. UFALA	4	16	33	77
11. OZAETA	4	15	33	74
12. BERGATRANS	0	0	0	0

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JALUA OH ZEREZOS	41	16	106	47
2. A ZE FLAXA	38	17	69	42
3. ARTUSAMAK	31	17	58	41
4. PAGOMENDI	31	16	69	47
5. UVE BIKOITZA	22	16	44	60
6. NAIKARI HOOLIGANS	22	16	57	57
7. KAYAK OS JARDINEIROS	19	17	71	70
8. HALTZARI	18	16	39	64
9. ETXAGI	16	17	77	96
10. AUTOBEREZI	15	17	49	62
11. ERI	14	17	46	63
12. INDARGORRI	12	16	19	40

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. SOROPOTROAK	42	17	92	48
2. KIROLZALEAK	40	18	88	51
3. AMOZKIBAR	32	17	46	29
4. LA JUVE	31	18	57	56
5. EZINLEIKE	30	17	78	49
6. NEKROFIKOS	26	18	70	73
7. MOSKIS	23	17	45	67
8. CONSTRUCCIONES BERGARA	22	18	55	64
9. EH BITERRAK	17	17	36	67
10. IGANDEKOAK	16	18	46	72
11. SHAKTALE	11	17	36	67
12. ARI ARI	10	18	65	82

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	40	16	82	33
2. GUADALEST	36	17	67	31
3. TXIPIRON	32	16	61	39
4. PJS	31	16	74	42
5. PATXARAN TEAM	29	17	63	49
6. OSINTXU	24	16	59	50
7. MATXAKATEGI	20	15	62	64
8. LABEGARIAETA	18	16	50	70
9. PATA NEGRA	17	17	46	90
10. ALDOKA MALDOKA	11	16	44	65
11. XURRUPAK	1	16	27	98

TALDEAK



Igandekoak taldea Joseba Agiriano, Nestor Inurrieta, Mikel Odriozola, Juan Carlos Fernandez, Jose Ignacio Familiar, Angel Martin, Aitor Gaztañaga, Jesus Sanz, Guillermo Miner, Jose Luis Pozo eta Santi Fernandezek osatzen dute. 4 urte daramatzate txapelketan jokatzeko eta beti 3. mailan aritu izan dira. Izenari dagokionez, zapatu gau batean irten zela adierazi digute, "ez genekien ze izen jarri eta antolatzaile batek eman zigun ideia". Taldea kuadrilakoek eta senitartekoek osatzen dute eta helburua ondo pasatu eta izerdia botatzea dute.

PARTIDUAK

LARUNBATEAN BARRUAN

09:00: Labegarieta-Xurrupak • Osintxu

10:00: Osintxu-FAC • Labegarieta

11:00: Aldoka Maldoka • FAC

LARUNBATEAN KANPOAN

10:00: Ari Ari-Moskis • Soropotroak

11:00: La Juve-Soropotroak • Ari Ari

12:00: Nekrofilikos-Amozkibar • La Juve

13:00: Ezinleike-Kirolzaleak • Nekrofilikos

IGANDEAN KANPOAN

09:00: Uve Bikoitza-Artusamak • OH Zerezos

10:00: Pagomendi-OH Zerezos • Artusamak

11:00: Madura Industrias Gol-Kabia • Ufala

12:00: Ogizun-Ufala • Kabia

13:00: Ozaeta-Mongatxurra • Ogizun

16:00: Etxagi-Indargorri • Os Jardineiros

17:00: Os Jardineiros-A Ze Flaxa • Bildurbarek

18:00: Bildurbarek-Bar Canalejas • A Ze Flaxa

19:00: Haltzari-Eri • Bildurbarek Opel/Lam

EMAITZAK

1. MAILA

ERROTAGAIN-BILDURBAREK OPEL/LAM 6 - 2

MADURA INDUSTRIAS GOL-OGIZUN 2 - 0

UFALA-BAR CANALEJAS 1 - 5

OZAETA-ORTZI 1 - 3

2. MAILA

AUTOBEREZI-ARTUSAMAK 3 - 4

KAYAK OS JARDINEIROS-ERI 4 - 2

3. MAILA

LA JUVE-IGANDEKOAK 2 - 3

KIROLZALEAK-CONSTRUCCIONES BERGARA 3 - 2

NEKROFIKOS-ARI ARI 2 - 2

4. MAILA

LABEGARIAETA-OSINTXU 1 - 2

PATXARAN TEAM-XURRUPAK 5 - 4

ALDOKA MALDOKA-FAC 1 - 5

PJS-MATXAKATEGI 9 - 1

TALDEAK



Xurrupak taldea Ion Elgero, Gorka Ruiz de Eginio, Gorka Gantxegi, Oier Bolibar, Ander Albusua, Denis Garmendia, Inigo Lizarralde, Andoni Larrañaga, Julen Minguez eta Roberto Merinok osatzen dute. Talde honek sekulako meritua du, izan ere, hor daude laugarren mailako azken tokian puntu bakar batekin, baina azken partiduetan badirudi mailari neurria hartzen ari direla puntu bat lortu baitute. Halere, aurtengoa lehenengo urtea dute txapelketan eta esperientzia falta hori ordaindu egiten da.

T XINPARTAK

Pala Txapelketako bigarren fasea

Udal Kirol Zerbitzuak antolatzen duen VI. Pala Txapelketan diharduten 12 bikotetatik sei onenak A multzoan eta beste sei B multzoan arituko dira astebukaera honetan hasiko den bigarren fasean. Honako hauek dira sei bikote onenak: Iñigo Agirrebeña-Jesus Ubera, Jon Alberdi-Gaizka Gallastegi, Jose Mari Laskurain-Unai Alberdi, Mikel Etxaniz-Etor Laskurain, Jaime Acedo-Igor Ortiz eta Valentin Zabalo-Gorka Azkarate. Denek denen aurka jokatu ondoren, bi onenek finala jokatu dute maiatzaren 25ean Osintxuko frontoian.

Patinaia ikastaroa

Deba bailarako kirol zerbitzuek antolatuta, Aretxabaleta eta Mutrikun hasierako patinaia ikastaroa egingo da apirilaren 20 eta 27an, eta maiatzaren 4 eta 11an. Ordutegia goizeko 9etatik 11etara izango da eta prezioa Deba bailarakoentzat 1.500 pzta.koa eta gainontzekoentzat 2.000 pzta.koa izango da. Informazio gehiago Udal Kirol Zerbitzuan, 77 91 67 telefonoan jaso daiteke.

Bartzelona-Ajax

700 bat lagun hurbildu ziren joan zen igandean Agorrosinera Bartzelona eta Ajax taldeen arteko partidua ikustera. Europako bi klub garrantzitsuenetako gazte mailako jokalariek lehia polita izan zuten eta katalandarrak 1 eta 0 nagusitu ziren azkenean. Realak antolatzen duen txapelketako jokalaririk onena, Ajaxeko Van Kallen, gertutik ikusteko aukera izan zen.



Bartzelona 7. sailkatu da Realak antolatutako txapelketan.

Pelota jaialdi ikusgarria larunbatean



Orain dela bi urte Reyes Azkoitiak irabazi zuen.

Bergarako Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolatuta larunbatean gaueko 10.30etatik aurrera pilota partiduak izango dira ikusgai Udal Pilotalekuan. Lehen partiduan Perez eta Arrietak, Arga III eta Aranbururen aurka jokatu dute. Bigarrenean Joseba Askasibar eta Reyes Azkoitiak duela bi urte jokatu dute partiduaren errebantxa jokatu dute 18 tantotara. Azkenengo partiduan Iker Muruamendiaraz eta Igor Oruesagasti, Tapia eta Beristainen aurka arituko dira.

Nesken futbitoa

Bihar bukatuko da emakumezkoen futbito txapelketaren lehen fasea 16:30etatik aurrera Miguel Altuna institutuan Guk eta Push Teamek jokatu duten partidurekin. Partiduak ez du zerikusirik sailkapenerako txapelketaren semifinalak erabakita baitaude. Potzu Ta Zapaburuak, Blue Star, Guk eta Almondigak taldeetatik irtengo dira finala jokatu duten bi ekipoak.



Push Team eta Amondigak taldeak.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Ordizia

2. mailako jubenilak.
Larunbata, 17:15. Ipintza.

◆ Bergara-Elgoibar

Emakumezkoak.
Larunbata, 15:30. Ipintza.

NESKEN FUTBITOA

◆ Guk-Push Team

Larunbata, 16:30.
Migel Altuna Institutua.

ESKUBALOIA

◆ Bergara-Urola

Kadete mutilak.
Larunbata, 16:15.
Labegaraieta kiroldegia.

◆ Bergara-Arrate

Kadete neskek.
Larunbata, 17:30.
Labegaraieta kiroldegia.

◆ Bergara-Urrietako

Jubenil neskek.
Larunbata, 18:45.
Labegaraieta kiroldegia.

GIMNASIA
ERRITMIKOA◆ Euskadiko
Txapelketarako
saillapen fasea

Igandean goizeko 11etatik
ordu batera eta arratsaldeko
4etatik 7.30etara bitartean
Labegaraieta kiroldegian,
Euskadiko txapelketarako
saillapen fasea jokatuko dute
Gipuzkoako gimnasia
elkarteetako kirolari
federatuek, tartean Bergarako
Ariznoa Gimnasia Erritmiko
taldekoek.

Iñaki de Mujika

Herri Irratiko Realaren ahotsa

Iñaki de Mujika duela 9 urtetik hona Herri Irratiko kirolerako arduraduna da eta eguerdiko Gipuzkoako etxeetan sartzen da kirolari buruz hitz egiteko. Aranzabal Lagunartearen aurkezpenean izandako elkarrizketan Realarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz hitz egiteko aukera izan genuen.

- Nola hasi zinen irratian?

- Filosofia eta Letrak ikasi nituen eta egunkari batean Elgorriagari buruz idazten nuen. Taldea hazten joan zen eta berri buruzko informazioa eskatzen hasi ziren, beraz, esan daiteke ni ere Elgorriagarekin batera hazi naizela.

- Eskubaloia ala futbola?

- Kirola gertutik ikustea gustatzen zait. Eskubaloia gertutik ikustekoa da, baina futbola izugarria da. Horrenbeste gauza ditu inguruan, egun guztiak desberdinak dira eta horrek ez du preziorik.

- Elkarrizketatzeko Realeko jokalaririk zailena?

- Galtzen badute ez da erraza eta ondo jokatzen dutenean oso erreza da, baina orokorrean ez dut arazorik izan.

- Eta erreza?

- Lorenek ondo berba egiten du. Lumbreasek jokatu ez arren, analisisirako gaitasun handia du eta Albistegi ere komunikatzaile ona da. Beteranoak dira elkarrizketatzeko onenak.

- Nola baloratzen duzu Realak orain arte egindako denboraldia?

- Jendeak bere buruan konfidantzarik ez badu, ez dira gauzak irtetzen; konfidantza hori daukanean, ostera, gauzak ondo irtetzen dira. Entrenatzaileak mentalizazio lana ere egin behar du.

- Athletic-en aurkako klasusulari zer deritzozu?

- Ondo dago. Bere jokalariai babesteko neurri bereziak hartu behar ditu Realak. Halere, ez dut uste indarrean inoiz jarriko denik, bilbotarrek ez dutelako horrenbeste diru.

- Aranzabal Real Madridera?

- Ez. Oraindik Realean gauza asko bizi behar ditu datozen bi urteetan eta ondoren joan behar baldin bada, joan dadila. Baina hemen baino hobeto ez dago inon. Badakit zer pasatu zaion Mikel Lasari Madrilen ia Aranzabalen egoera berean.

- Datorren urtean?

- Daudenak gelditzen badira gauza politak egin ditzakete txuri-urdinek. Aurrelari golegile bat eta aurrerantz begiratzen duen erdilari bat ekartzen badute, talde ona izango dela uste dut.



"Eskubaloia gertutik ikustekoa da baina futbola izugarria da".

"Aranzabalek beste pare bat urte egin beharko lituzke Realean"



1965eko Bergarako futbol talde nagusia

Aste honetako argazkia 1965-66 denboraldian hirugarren mailara igotzekotan egon zen Bergara Kirol Elkarte talde nagusiarena da. Mailaz igotzeko partidu erabakiorra jokatu zuen Atotxan Ordiziaren aurka, eta 1 eta 0 galdu zuen. Talde polita zen, urtebete lehenago Bartzelonaren kontra finala jokatu zuen gazte mailako taldean aritutako jokalaririk asko baitzeuden ekipoa.

Azkenean galdu arren, gola sartzeko aukera ezin hobea izan zuten bergararrek, lehen minutuan. San Vicente-ren jaurtiketa baten ondoren, baloia ordiziarren atearren marran gelditu zen, Atotxako zelaia oso lokaztuta zegoelako. Bergarak ez zuen 3. mailara igotzea lortu eta urte batzuk pasa behar izan ziren mailaz igotzeko.


Alzela zen entrenatzailea eta argazkian agertzen diren hasierako hamaikakoa osatu zutenak honako hauek:

Zutik: Angel Iñarra, Enrike Olañeta, Luis Abajo, Agustin Aranzabal "Gaztelu", Juan Egaña "Pitia" eta Iñaki Berstain (lehen atezaina).

Makurtuta: Jesus Irizar, Pablo Gallastegi, Jose Jabier Mendia, Juan Antonio Igarza, Julio San Vicente eta Esteban Arietaleanizbeaskoa. Badirudi honen ondoan agertzen den mutikoa entrenatzailearen semea dela.

Argazkia: Jauregi "Altzeta"

JOSE LUIS UGARTEBURU LASKURAIN
HERMINIA CRESPO SAMPIETRO



PILI UGARTEBURU IKASLEAREN GURASOAK

Maitasuna sobera
nintzelarik haurra,
ez nekien nik zer zen
gurasoen beharra.
Bortu batean orain
naiz bakar bakarra,
haietaz oroitu orduko
heldu zait negarra.

AKULU

æk

EUSKALTEGIA



MAPFRE
MUTUALIDAD

Simon Arrieta, 3 BERGARA
☎ 76 28 79 / 76 18 80

GOGORATU!! ORDAINKETA ERRAZTASUNAK ETA %50 ARTEKO BEHERAPENAK ISTRIPUAK EZ IZATEAGATIK


Inoiz ez du aseguru etxe batek halako aukera zabalik eskaini. MAPFRE MUTUALIDAD-i esker, hemendik aurrera izango duzu zer aukeratu. Edozein direla ere zure beharrak eta nahiak, zure autoarentzako neurriko aseguruak aurkituko duzu beti. Hala seguru izan zaitezten. Seguru eta babestuta. Zure atzean auto-asegurutan buru den etxea izango duzulako.

**Haurdun bazaude
LAURA da zure
jantzidenda.**

**Udaberriko moda
gaztea jazteko neurria
ez da izango arazoa.**

Tailaje zabalena dugu.

Laura



Erdiko kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE

Diru asko ala gutxi,
ez ondotik pasa, ez begiak itxi.



Sartu, ikusi...
eta komeni bazaizu erosi.



centro
hogar
MUEBLES

GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**

Sartzen dena:
zeuk behar dituzun altza

ARRASATEKO BARIANTEA